

- Jainko ona, zakizkit neri laguntza.
- Jauna zatozkit arin laguntzera.
- Aintza Aitari...
- Asieran...

Esku-eskubiko zauriari

Andra Mari, Zeruko Aingeru ta Santu guztiekin batean apalkiro belaunikaturik, gurtzen det zure esku-eskubiko zauri txit santua, ene Jaun maite Jesus gurutziltzatu ori. Biziro gorrotatzen ditut nere pekatu guztiak eta oien orde, zure maitasun neurri gabeak eraman zitun neke-lan ikaragarrietik, eskerrak damazkitzut. Arren, etsaiak menderatuz, garaipena emaiozu Elizari; baita kristau orori, zure Aginduen bide zuzenean ibiltzea.

Aitagurea - agurmaria - aintza.

Esku-ezkerreko zauriari

Andra Mari, Zeruko Aingeru ta Santu guztiekin batean apalkiro belaunikaturik, gurtzen det zure esku-ezkerreko zauri txit santua, ene Jaun maite Jesus gurutziltzatu ori. Pekatari errukarrientzat zure grazia eskatzen dizut; baita il zorian daudenen-tzat ere; eta ugariagoa zure dei maiteko-rra ukatzen dutenentzat.

Aitagurea - agurmaria - aintza.

Eskubi-oñeko zauriari

Andra Mari, Zeruko Aingeru ta Santu guztiekin batean apalkiro belaunikaturik, gurtzen det zure eskubi-oñeko zauri txit



Ene Jesus, erruki zakizkit

santua, ene Jaun maite Jesus gurutziltzatu cri. Apaiz eta zuri eskeiñita dauden gizon-emakumeen artean Santu asko aukeratu itzatzu.

Aitagurea - agurmaria - aintza.

Ezker-oñeko zauriari

Andra Mari, Zeruko Aingeru ta Santu guztiekin batean apalkiro belaunikaturik, gurtzen det zure ezker-oñeko zauri txit santua, ene Jaun maite Jesus gurutziltzatu ori. Garbitokiko anmak azkatu itzatzu, batez ere, emen zure zauri maitagarrien zaletsu izan ziranak.

Aitagurea - agurmaria - aintza.

Saietseko-zauriari

Andra Mari, Zeruko Aingeru ta Santu guztiekin batean apalkiro belaunikaturik, gurtzen det zure saietseko zauri txit santua, ene Jaun maite Jesus gurutziltzatu ori. Nere otoitz eske datozenak bedeinkatu ta entzun itzatzu.

Aitagurea - agurmaria - aintza.

Birjin neketsua. Otoi gure alde (iru bider).

Gurutzeko Jesus, aberastu nere otoitz auek zure Nekaldiko irabaziekin; emaida-zu arren, santutasuna bizitza ontan, eriotz zorian Elizakoak artzeko grazia eta gero betiko zoriona. Ala bedi.

Aldiko: 300 eguneko barkapena.

Illean bein: Barkapen osoa.

Aita Santuaren Bedeinkapena

Jesus Gurutziltzatuaren bazkide-lagun eta beren Lendakaria, grazi bereziz betetzeko, eskatzen diogu Jaunari.

“Jesukristo ta Bera gurutziltzatua” irakatsi dezatela, aspertu gabe, itzaldiz eta ikasbidez apaizak, baita erri-gizonak beren kristautasunez.

1915 urteko Ilbeltzaren 18'nean.

BENEDICTO P. P. XV.

Kristo Gurutziltzatuaren jaiera zabalteko, orritxo auk eskatzen dutenei, duan-debalde emango die, Kristau-Ikasbidearen maixuen bazkunak. Ala ere, laguntza pozik artuko lukete gastu guztiak garbi dezaten.

Salletarren Anaidia du jabe.

IMPRIMATUR

San Sebastián, 17 de Noviembre de 1965

Santiago Panizo

Jesus Gurutziltzatu ta Mari Sortze - garbiaren Kristau Ikasbide Maixuen Alkartea,

Jesus Gurutziltzatuaren eta Andra Mari Sortze-garbiaren babespean jarria dagon, erri-gizon Anaidi bat degu.

Bi xede-elburu berezi ditu.

—Lagun bakoitzaren santutasuna lenen.

—Kristau - Ikasbidearen zabalkuntzaren bidez, gizarteko apostolutza gero.

Salletar Anai Teodoretok sortua izana da. Alkartea onen merezimentu, barkapen ta grazi berezietan parte artu nai duanak. Jesus Gurutziltzatuaren jaiera izan ta Alkarteari lagundu bearrian dago. Orrela zaitzalle edo Bazkide izendatua izan ditteke.

Erri-gizon Anaidi onen berri jakin eta bere izena eman nai duanak, zuzendu bedi bere eskaria orrela:

Presidencia General de la Unión: Via Bernardino Galliari, 2. Turín (Italia).

baita ere nai ezkeru:

Sede de Bilbao: Licenciado Poza, 19. Bilbao (Vizcaya).

Sede de San Sebastián: Ediciones Bruño. Barrio Loyola. San Sebastián (Guipúzcoa).

Jesus Gurutziltzatuari jaiera

Jainkoaren mirabe dan, fray Leopoldok O.F.M. zabaldu zuen jaiera degu.

Xede-aburutzaz: Jesus Gurutziltzatuaren maitasuna ta ezaguera zabaltzea gizonen artean.

Bere bitartez:

—Ilduri edo penitentzi gogoia ernetzea,

—Kristau gogo-bizitza berritzea,

—Sakramentu santuak sarri artzea.

—Pekatu guzien ordaiña eskeiñi Jaunari,

—Gizonen biotzetik, etxeetik, ikastoleetik kurutzea baztertu nai duenen iraiña garbitzea.

Jaiera onek beraz, bi zer berezi ditu:

—pekatu ordaiñtzalle ta

—Kristau Ikasbide zabaltzalle izatia.

Bi zer oiek Ostiral Santuko liturjian ikusten ditugu baturik. Damua ta maitasuna sortzen bai dizkigu gure baitan Egungo Santu ortako liturjiak.